ITAKA ESCOLAPIOS mugitu

mugitu!

Diseinatu duten konponbidea gauzatzeko momentua da. Agian ekintzak ez dira uste zuten bezala ateratzen, baina ez dute itxaropena galdu behar. Aurrerago, hobetu eta ekintza garatuagoak egin ahalko dituzte: garrantzitsuena da beren proiektua ideia hutsean ez geratzea. Harrotasunez erakusten dute haiek ere AHAL DUTELA. Bai horixe! Zein da funtsezko osagaia? KONFIANTZA. Batzarrean ordezkari izandako ikasleak, gazteak..., bere klasera, taldera... itzultzen dira, egin daitezkeen ekintza sortarekin. Helburua orain, burutzeko egokiena zein izango den aukeratzea da. Horretarako, gure ekintza aukeratzen lagunduko digun taula hau proposatzen dugu.

Puntuak eman 1etik 5era (1 = ezer ez / 5 = asko edo dena)

- Garrantzia: ideia garrantzitsua izango da jende askorentzat (5) edo pertsona gutxirentzat (1)
- Eraginkorra: ideiak erabateko aldaketa ekarriko du (5) edo ez da gehiegi nabarituko
- Egingarritasuna: ideia guk geuk burutu dezakegu (5) edo burutzen zaila da.
- Kanpainarekin zerikusia: Kanpainaren helburuekin lotura du (5) edo lotura gutxi (1)

Gelan, ikasle bakoitzak taula hau betetzen du proposatutako jarduera bakoitza baloratuz. Helburua da taldean/gelan gauzatu ditzakegun ekintzen sailkapena lortzea. Beste mailak edo gelak ere nahastu ditzakegu gure ekintzan.
Lortutako sailkapenarekin, gelak burutuko dituen ekintzak aukeratzen dira.

Ideia	Garrantzia	Eraginkorra	Egingarritasuna	Kanpainarekin zerikusia	Puntuazioa	Sailkapena